BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5043

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 9koa, Industriako sailburuordearena. Honen bidez jakinarazten da Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzak 2015eko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2015eko ekitaldian onuradun izan diren erakundeen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 9a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
«ACEDE» Euskadiko Etxetresna Elektrikoen Kluster Elkartea, A.I.E.	53.800,00
«ACICAE» Euskadiko Automobilgintzaren Kluster Elkartea	186.670,00
«ACLIMA» Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkartea	147.710,00
«AFM» Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Tresna Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea	170.087,00
«EIKEN» Euskadiko Ikus-entzunezkoen Kluster Elkartea	85.394,00
Energiaren Kluster Elkartea	213.600,00
Euskal Itsas Industria Sustatzeko Elkartea (Euskal Herriko Itsas Foroa)	212.315,00
«GAIA» Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea	207.411,00
«HEGAN» Euskadiko Aeronautika eta Espazioaren Kluster Elkartea	194.451,00
Euskadiko Paperaren Kluster Elkartea	79.034,00
Uniport Bilbao Elkartea / Portuko Komunitatea	138.188,00
Guztira	1.688.660,00